

1995-96.

1. Noriz asmatua izana da Guillotina?
2. Norik asmatua zuen?
3. Nonka ozean et horria zena?

(I)

1

GILLOTINA

Kentzer<sup>1</sup> daukute gure deputatuek. Ehun bat eta zenbeit bozez<sup>2</sup> nausitu da. Hiruetan hogoi bat itzuli balazkio, lepho mozteko tresna izigarriari kontra, akabo zen. Bethikotz edo behingotz<sup>3</sup>, edo k daki? Gizon hiltzaleak ministro jarri arte, itzalerat beharko zuen.

Erreboluzione handiaren aitzineko egunetan ere kendu zuten behin gaixtaginen hilaraztea lephoa moztuz. Gero ezarri berriz legean; eta dakizuena, gaixtaginez bertzerik hilarazi, Frantzia guzia odoletan ezartzerainokoa hoben izpirik etzutenei lephoa moztuz.

Ordu arte burregoak<sup>4</sup> hiltzerat kondenatuak zirenei burua zurbaten gainerat etzanarazirik, aizkora ukaldika mozten zioten. Huts egiten zutenean berriz jo, moztu arte. Ikaragarri omen zen ikustea.

Dohakabeak urrikariz, eskuzko aizkoraren orde, Guillotin deithu mediku deputatu batek eginarazi zuen oraiko tresna hori, burregoaren lan lazgarria errestuz, hil behar zena ere horrek lasterrago mozkinduko<sup>5</sup> zuela, min gutiago eginez; kasik ohartu gabe; atx erraiteko arterik utzi gabe.

Nonbeitik halere<sup>6</sup> kenka<sup>7</sup> onean jina zen *gillotina* delako tresna izigarri hori. Mila zazpi ehun eta lauetan hogoi-ta hamahiruan horrekin Frantziako hiri guzietan, edo gehienetan moztu zituzten buruak ehunka, milaka. Eta nori? Ez bakharrik erregeri eta erreginari, baina gizon ala emazte, inozent, ahul, tzarren ihes beldurrak zerabiltzanei eta orori; neskato gazte, haur, zahar ezindu, eri herrestat<sup>8</sup>, hiltzaleen alde etziren guziak harrapaka preso ereman, eta jujatu ere gabe, multzoka orgetan<sup>9</sup> estekaturik, gillotinatzerat.

Hitz dautzuet<sup>10</sup>, etzela zenbeit hilabetez herdoildu *gillotina*, bereziki Parisen, alfer egonik.

Azkenekotz elgarri jazarri ziren hiltzaleak, arima salbu-ta zakurrak hilki<sup>11</sup> gosez elgarri jazartzen diren bezala. Batzuk bertzer ondotik jastatu<sup>12</sup> zuten —ez orok, baina anhitzek—, ea lephoan min egiten zuenez gillotinak.

○

(II) ADITZ IKASKUNTZA.

31. Balazkio 32 Dakizuena

33. Mozten zioten 34 Zerabiltzane.

31 UKAN Conj. a dble cplt. Supposit. Event.

Hari = a lui - O Sing. C I. singulier.

Nik banio = banakio = si je le lui avais

Zuk bazinio = bazinakio = si vous le lui aviez

Harek balio = balakio = si il le lui avait

Guk bazinio = bazinakio = si nous le lui avions

Zuek baziniote = bazinakiote = si vs le lui aviez

Heiek balio = balakiote = si ils le lui avaient

O. Pluriel. O. S. banizkio, bazinizkio = etc. ou en Basque Navarre banizkio, bazinizkio, balazkio etc. etc.

32. JAKIN. Indicatif Present.

O. S.	O. P.
Nik dakit = je le sais	dakit = je les sais
Hik dakik/ur = tu le sais	dakik/ur = tu les sais
Zuk dakizu = {	dakizu = {
Harek daki = {	daki = {
Guk dakigu = {	dakigu = {
Zuek dakizue = {	dakizue = {
Heiek dakite = etc.	dakite = etc.

33. UKAN. Conj. a dble cplt. Indic. Imperfect.

Nik nion = je le lui avais	} O. S.	
Zuk zinion = vous le lui aviez		
Harek zion = il le lui avait		
Guk zinion = nous le lui avions		} C. I. P.
Zuek zinioten = vs le lui aviez		
Heiek zioten = ils le lui avaient		

Hari = a lui